

abere ba

Hamaika abere kapikua

San Telmo Museoan, Donostia

2020-02-02 / 2020-02-29



Museoa piztegi bihurtu da, piztiak biltzen dituen lekua, baita ideiak pizteko balio duen tokia ere.

2020ko otsailaren 2a data kapikua da: 2020-02-02.

Egun honetan urteak 33 egun ditu eta 333 faltako dira urtea bukatzeko.

Une magiko honetan, eta Euskara ibiltaria denez, ele, ipuin, kantu eta kondairetako animaliak lozorrotik esnatu eta San Telmo Museoan zehar sakabanatu dira. Beraien izenarekin palindromo edo hitzezko kapikua bana sortu dute eta mezu ezkutua idatzi dute guztien artean. Mezua osatzen lagunduko?

Abereen bilaketa museoan.

Jolasaren argibideak.

San Telmo Museoko erakusketa iraunkorreko gunetan zehar 11 animalia eta 11 esaldi palindromo hedatu dira.

Hamaika animaliek beren izenean dagoen hizki baten itxura dute.

Hamaika hizkiekin mezu ezkutua osatu daiteke.



Eman beharreko pausoak.

- Museoko 11 gunetan 11 palindromo eta animaliak topatu.
- Zein hizki dago abere-irudi bakoitzaren oinarrian?
- Hizki bakoitza hurrenkera egokian jarri.
- Esaldia osatu. Lortu duzu!
- Zure aurkikuntza museoko harrerara eraman eta 'abere ba' liburuaren 11 aleren zozketan parte hartu.

Piztegiak ideiak piztu ditu Donostian eta...

Amezketan, Arrasate zein Bakion:


_____ !
7 11 1 6 3 2 4 9 10 8 5

Izen abizenak: _____

Kontakturako telefonoa: _____

Datu hauek liburuen zozketarako soilik erabiliko ditu museoak.

Hamaika abere kapikua.



Guneak eta animaliak.

1 Argizaiolak, hilarriak.

Espiritualtasun zeinuak.

Animalia honen inguruko herri sinismenek zorigaiztoarekin lotu izan dute eta gure literaturan leku berezia eman diote. Kontuz belarritik sar dakizuke eta.

2 Balearen atzetik.

Aztarnak oroimenean.

Hitz polisemikoa da bere izena.

Datorren aro beroan desagertzeko arriskuan dagoen itsas animalia izateaz gain, harmonian kantatzen duen taldea ere bada, «Itsasoa laino dagoo».

3 Burdingintza.

Aztarnak oroimenean.

Egusentiro ekialdera begiratzen duen orratzik gabeko iratzargailua, eta aldioro haizeak nondik jotzen duen dakien orratza. Ezezagunaren aurrean abere babeslea. Ego harrotuen alter hegoa.

4 Jendartean bizi. Trena.

Modernitatearen hasiera.

Arrantza egin bai eta arrainik jaten ez duen aberea. Hizkuntza ezberdinetan bere hotsa ezberdina al da? Enkarterrikoak sankak, aja-ja, ii-aaa, hi-han hi-han; katalanak i-haa; andaluziarrak iii-aah iii-aah; afrikarrak hie-hô; arabiarrak hiihan hiihan; ingelesak hee-haw, indiarrek si:po:-si:po: eta frantsesak hihan; elkar ulertu nahian, esperantzaz esperantoz, errazena: ia.

5 Jendartean bizi. Euskal kultura.

Modernitatearen hasiera.

Animalia guztiz literarioa. Literatura unibertsala eta euskal ele zaharretan, ipurdia ere tinta bezain beltza duena.

6 Tradizioak bizirik dirau. Aizkolaria.

Modernitatearen hasiera.

Kolpez kolpe, tresna egokiaz orniturik bere etxea eraikiko du baso idilikoan euria iragartzen duen doinua zabalduz.

7 Tradizioak bizirik dirau. Baserria.

Modernitatearen hasiera.

Mariren laguna, abereen babeslea, zurrumurruek ziotenez, atzekoz aurrerako mezuetan barreka okerra da.

8 Jendartean bizi. Trantsizioa.

Modernitatearen hasiera.

Ikur bihurtutako animalia. Euskararena, bakearena, askatasunarena, eta hirietako kaosarena.

9 Industrializazioa. Itsasontzia.

Modernitatearen hasiera.

Kostaldeko hiri eta haurren marrazki askok, goia jo du beren animalia honen kopuruarekin, baina hark ez du kaiolarik ezagutu sekula, eta kaitik ameslari, jo du gora.

10 Industrializazioa. Telefono zentrala.

Modernitatearen hasiera.

— — — — — . . . — . . . — —

Itsas bidaietan gidari diren itsasargietako lengoia hau itsas animalia hauena ere izan zitekeen. Hor duzu bere izena.

11 Industrializazioa. Ikurrak eta publizitatea.

Modernitatearen hasiera.

Zeinuak kontsumo gizartearen bitartekari. Objektu gehiegi, informazio gehiegi. Animalia gutxiago, natura gutxiago. Hitz gehiegi?